

2023-24an, 40.URTEURRENA OSPATZEKO EKINTZAK

1. Miserableak 30 urte

Gabonetako kontzertuan gogorarazi genuen Miserableen 30.urteurrena. Gure taldeak Musikalaren abestiak jo zuten eta guraso eta partehartzaile ohien laguntza izan genuen. Partehartzaileen artean pegatinak banatu genituen.

2. Erakusketa

40. Urte hauetako historia argazki eta bideoen bitartez kontatu nahi dugu. Bedelkar elkartearekin elkarlanean egingo dugu erakusketa Maiatzaren 27tik ekainaren 8ra. Herriko komertzioei luzatu diegu gonbidapena eta oso harrera ona izan du. Bergarako 58 denda, tabernak.... Hartuko dute parte erakusketan.

40.urteurrenean, instrumentu ezberdinen topagune bihurtu nahi izan dugu Bergara. Herri ezberdinetako musikariak Bergarara etorriko dira.

3. Debagoieneko piano jaialdia Bergaran.

Debagoieneko piano jaialdia Bergaran egingo da. Oñati, Eskoriatza, Arrasate, Aretxabaleta eta Soroluzeko .Adin ezberdinetako 71 pianojole hartuko dute parte Otsailaren 25ean Seminarixoa goizeko 9:30etatik egingo den jaialdian. Musika Eskolen elkartea eta Bergarako Udalak izango dira babesle nagusiak. Izan ere, asteburu berean euskal herri osoan ospatuko dira piano topaketa ezberdinak. Azkoitin, Legazpin, Durangon, Astigarragan.

4. Iñauterietan egiten den sorgin dantzan eta erramu zapatuan fanfarrearen aurkezpena.

Aurtengo proiektuen artean Fanfarrea sortu dugu. Dantza eskola sortu genuenetik talde musikal finkoa gure dantzarietara laguntzeko faltan botatzen genuen, eta aurten hainbeste urtetako eskaera eta ametsa gauzatzen dihardugu fanfarrearekin. Aritz Alustizak zuzentzen du eta instrumentu anitzak daude bertan. Bibolinak, tronpeta, tronboia, trikitiak akordeoia, perkusioa.... Aurre-estreinaldia aurreko astean izan zen, Aratusteetan; estreinaldia erramu zapatuan izango da.

5. Flauta topaketa

Legazpi, Astigarraga, Zestoa, Lesaka, Bera, Zumaia, Herrera(Donostia), eta Loatzoko Musika Eskoletako flauta-joleek elkartuko dira Bergara apirilaren 13an, Mariaren Lagundiko elizan kontzertua eskaintzeko.

6. Debagoieneko soka topaketa.

Lehen aldiz eta 40. Urteurrenarekin bat eginda Bergaran elkartuko dira bailarako sokazko instrumentu-joleak. Horrelako topaketa bat antolatzen den lehen aldia izango da . Arrasate, Aretxabaleta, Oñati, Soroluze... Apirilaren 20an, 13.00etan izango da. Hasiera batean Seminarixoa egite aurrekusten da, baina ondo aztertu behar dugu zeren dagoeneko askok eman dute izena eta Seminarixoa ez direla sartuko denak uste dugu...

7. Irakasleen emanaldia

Apirilean Musikako ostegunean irakasleok egingo dugu emanaldia Irizar Jauregi parean eguraldi ona eginez gero. Aste osoan hogeitau urteetan bezala, ikasleak izango ditugu egunero jotzen, dantzan, abesten... eta aurten, kalean ostegunean irakasleok izango gara protagonistak. Gure arteko hainbat talde sortuko ditugu eta musika mota ezberdinak jotzeko asmoa dugu.

8. EIO , euskadiko ikasleen orkestra.

25. Urteurrenean, Euskadiko Orkestra etorri zan Bergarara, Udalari esker.

Gure ikasleen presentzia Euskadiko ikasleen orkestretan , garrantzitsua izan da azkenengo urteetan. Hori dela eta, egoki ikusten dugu EIO Bergarara ekartzea. Eusko Jaurlaritzako proiektua da eta Erlantz Fernández arduraduna da. Aurreko asteburuan izan ziren frogak eta aurten berriz hiru bibolin-jole Bergararrak gaintitu dituzte frogak. Beraz, apirilaren 6an, Bergaran izango dira jotzen. Gasteiz, Bilbo eta Donostian ere emango dute kontzertuak.

EIO, APIRILAREN,6an, 12:30ean Sta. Marina elizan izango da.

9. 40. Urteurreneko abestiaren audio eta bideo grabaketa

10. Ikasleekin grabaketa txukun bat egitea nahi dugu. Bideo bat abesti batekin.

11. Aurreko ikasturtean Idoia Asurmendirekin sortu zure kantua tailerra egin genuen

Musika Eskolan. Oso abesti polita sortu zuten gure ikasleek Idoiaren laguntzarekin eta 40. Urteurreneko kanta moduan hori erabiltzea erabaki genuen. Instrumentu ezberdinetarako moldaketa egin beharko da eta Enrike Txurrukari proposatu diogu. Bergarako AURYN musika estudioan egingo dira nahasketa eta grabaketa. Grabaketa honen bueltan ikastetxeetan LH5 eta LH6 ikasleei zuzenduta, Idoia Asurmendirekin egingo da ikastaroa. KANTUA SORTUZ, KANTUA BIZI. Abestiaren sortze prozesua nola izan den azaltzea eta ariketak egitea da ikastaroaren helburua. Bide batez, ikasleek 40.urteurreneko kanta ikasiko dute eta euren irudiak aterako dugun bideoklipetan sartzea da gure asmoa.

12. Hamellingo Txirularia, Iñigo Casali musikagile nafarraren opera.

BAM elkarteak bultzatuta, 2024ko udazkenean estreinatuko da. Opera euskaratze prozesuan dago eta 2024an hasiko ditugu entseguak.

13. Udaberriko jai-Musika eguna-ospakizuna

Herriko taldeak gonbidatu ditugu musika egun hau ospatzera: Bergarako Banda, Bergarako Orkestra, Bergarako Orfeoia, Aritzeta abesbatza, Bergarako txistulariak....

Kalejira ezberdinak egin , poligonotik, parketik, bolutik... Irtengo dira, baina kontzertua espaloian egingo dugu. Hiru Kanta egingo ditugu talde guztiok batera: Euskal Herrian Euskaraz, Alfredo Gz. Chirlaqueren Musika Eskolako Martxa(35 urte betetzen dituena, 1989koekainaren 6an, 1.udaberriko jaietan estreinatu zen) eta Idoia Asurmendik gure ikasleekin sortutako kanta. Ondoren Herri bazkaria eta erromeria egingo dugu, duela 35 urte bezala.

Jai egun hau, hainbeste urteetan boluntario lanetan ibili den jendea gogoratzeko erabiliko dugu. Argi daukagu gure proiektua Herritik sortu zela eta herritar askori sor diogula gaur daukagun Musika Eskola. Horiek omendu nahi ditugu. Dagoeneko 40 urteetan zuzendari batzordetik pasatako 145 boluntarioen izena jaso dugu.